


Euskadi %2,2 hazi zen bigarren hiruhilekoan

EAEko ekonomiaren hazkundera Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat

Eustatek argitaratutako kontu ekonomikoen arabera, **Euskadiko BPGa %2,2 igo zen 2025eko bigarren hiruhilekoan**. Tasa hori uztailleko aurrerapenean zenbatetsi zen bera da, eta hamarren batean gainditzen du aurreko hiruhilekoko erregistroa. Halaber, enpleguak bilakaera positiboarekin jarraitu zuen, eta %1,4ko hazkundera jaso zuen aurreko urteko aldi beraren aldean.

Autoen matrikulazioak gora egin du Euskadin

EAEko turismoen matrikulazioa Urte bakoitzeko urtariletik abuztura



Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) argitaratu berri dituen datuen arabera, **aurtengo lehen zortzi hila-beteetan 22.228 auto matrikulatu ziren EAEn, aurreko urteko aldi berean baino %21,0 gehiago**. Hazkundera oso adierazgarria bada ere, pandemiaren aurreko mailetatik urrun daude oraindik, 30.000 ibilgailutik gorakoak baitziren.



EAEko merkataritzaren salmentak %0,7 gehitu ziren

Merkataritza indizea (MI)
Urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoa




Iturria: Eustat

EAEko merkataritzaren sektoreko salmentak %0,7 gehitu ziren 2025eko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Era berean, enpleguak ere bilakaera positiboa izan zuen, %1,0ko hazkundearekin.

Atzeritarren afiliazioak martxa onarekin jarraitzen du

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Atzeritarren kopurua



Iturria: Gizarte Segurantza.

Abuztuan, Euskadin, atzeritarren Gizarte Segurantzako afiliazioa %6,0 igo zen urte batetik bestera, 102.000 pertsonatik gora, eta abuzturako daturik onena lortu zuen. 2021eko bigarren hiruhilekotik, atzerriko afiliazioek hazkunde jarraitua izan dute, maiatzetik 100.000 afiliatu baino gehiago izateraino.